

 **EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

 **gizonduz**

Euskal Autonomia Erkidegoan gizonak  
sexuen arteko berdintasunaren alde  
kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea  
eta inplikazioa bultzatzeko ekimena

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
ARTEKO BERDINTASUN-  
POLITIKAK –BEREZIKI GIZONEI  
BIDERATUTA DAUDENAK–  
HOBETZEKO EKARPENAK:**

EAEko Administrazio Publikoaren  
Berdintasuneko teknikarien eta  
Berdintasunaren aldeko Gizonen  
Elkarteetako kide diren gizonen iritziak  
eta balioespenak

**Zuzendaria: Maribel Pizarro Pacheco**

Laguntzailea: Liher Bakaikoa Erro  
2016ko abendua

# AURKIBIDEA

	or.
I. SARRERA	1
II. HELBURUAK	1
III. ERABILITAKO METODOLOGIA	2
IV. FOCUS GROUPEAN EMANDAKO IRITZIAK ETA EGINDAKO BALIOESPENAK	3
1. POLITIKA MOTA HORI BULTZATZEARI BURUZKO BALIOESPENA	4
2. POLITIKA MOTA HORREKIN IZAN DUTEN ESPERIENTZIAREN BALIOESPENA	7
3. GIZONDUZ EKIMENAREN BALIOESPENA	7
4. IKUSPEGIAK, LEHENTASUNAK, IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK	11
5. AURRERAPENAK ETA ETORKIZUNENKOKO ERRONKAK	16

ERANSKINA: Focus Groupetan erabilitako gidoia

## I. SARRERA

2014. urtearen amaieran, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak erabaki zuen Gizonduz Ekimenaren barruan sartutako jardun batzuen prozesuari eta emaitzei buruzko Ebaluazioa egitea berdintasuneko programen eta politiken ebaluazioan espezialista den kanpoko kontsultari batekin. Ebaluazio horren azken helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak –bereziki gizonei bideratuta daudenak– hobetzea da. Ondoren aurkeztuko dizuegun dokumentua ebaluazio horrekin lotuta dago, eta, beraz, dokumentu honek ere helburu bera du; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken esparruan gizonekin egiten den lana argitu eta erraztuko duen dokumentua izan nahi du.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-jardunetan edo -politiketan espezialistak diren pertsonak gai honi buruz egin dituzten balioespenak biltzen dira dokumentu honetan. Pertsona horiek gehienak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetako teknikariak dira, eta, zehazki, berdintasuneko teknikariak dira. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna helburu nagusitzat duten elkarteetako kide diren eta arlo horretan prestakuntza espezializatua duten gizonek ere parte hartu dute dokumentu honetan.

1

## II. HELBURUAK

Adostasun zabala dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenean gizonak inplikatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria desagertzeko premiari dagokionez, baina iritzi desberdinak daude erabili behar diren estrategiei eta metodologiei dagokienez eta estrategia eta metodologia horiek eragina izateko duten gaitasunari dagokionez. Horregatik, pentsatu da garrantzitsua izango zela jakitea gai horri buruz zer iritzi duten gizonentzako politika mota horietan parte hartzen duten (teknikoki, politikoki edo sozialki) sektoreek: alde onak eta txarrak; adostasunak eta desadostasunak; emakumeen ahalduntze ekonomikoa, soziala eta politikoa lortze aldera benetan bultzatuko diren ekintzek bete beharreko irizpideen mugatzea.

### III. ERABILITAKO METODOLOGIA

Atal honetan biltzen dira parte hartu duten pertsonen profilari buruzko informazioa, erabilitako informazioa biltzeko teknika eta gauzatu den azterketa mota.

Guztira, **22 pertsonak hartu dute parte** (17 emakumek eta 5 gizonek). 17 emakumeak EAEko Administrazio Publikoko berdintasuneko teknikariak dira (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak), 2 gizon EAEko Administrazioeko teknikariak dira (autonomikoa eta aldundikoa, hurrenez hurren), eta 3 gizonek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko helburutzat duten elkarteetan parte hartzen dute modu aktiboan. 22 pertsonek gai horri buruzko prestakuntza espezializatua dute.

«Focus Group» izeneko **teknika** erabili da; zehazki, 4 talde egin dira:

- 3 Foku Talde berdintasuneko teknikariekin. Teknikari horiek EAEko Administrazio Publikoko hiru mailetakoak dira (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak) eta modu boluntarioan hartu dute parte. Talde bakoitzaren iraupena 2 ordu ingurukoa izan da.
- Foku Talde bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko politiken eta programen alorrean prestakuntza edo esperientzia duten gizonek osatu dute. Taldearen iraupena 2 ordu ingurukoa izan zen.

Osatu diren 4 taldeetan gidoi bera erabili da (ikus eranskineko dokumentua).

Focus groupetan bildu den materialarekin egin den **azterketa mota** «zuzeneko edukikoa» izan da. Hau da, elkarrizketetan eta *focus groupetan* azaltzen dena hitzez hitz hartu da. Horretarako, honako zeregin hauek gauzatu behar izan dira:

- 1) Egindako taldeen hitzez hitzeko transkripzioa; dokumentu bat egin da transkripzio bakoitzeko.
- 2) Taldeen transkripzioei buruzko hainbat irakurketa. Ezinbestekoa izan da behin eta berriz irakurtzea edukira ohitzeko ez ezik, eduki garrantzitsuena hautatu ahal izateko ere.
- 3) Beharrezkoa ez den edo azterketan aintzat hartzen ez diren elementuetatik urrun dagoen materiala eta edukia kendu egin da.

4) Taldeetan landu diren gaien arabera antolatu da materiala; horretarako, hainbat dokumentu sortu dira.

5) Taldeetako edukiak egituratu dira.

#### **IV. FOCUS GROUPETAN EMANDAKO IRITZIAK ETA EGINDAKO BALIOESPENAK**

Focus Group horietan parte hartu duten pertsona gehienek nolabaiteko esperientzia izan dute bereziki gizonei bideratutako berdintasun-politika publikoak aplikatzeari dagokionez; politika mota horiekiko hurbilpena Gizonduz programatik eskaintzen diren prestakuntza-eta sentsibilizazio-ikastaroen bitartez egin da batez ere.

Esperientzia horretatik haratago, pertsona gutxik adierazi dute gai hori zertxobait ezagutzen dutela. Adierazi dute gai horri buruz ez dela nahikoa eztabaidatu (ez Administrazioaren aldetik, ezta gizarte-mugimenduen aldetik ere), eta dauden esperientziak eta ekimenak urriak izateaz gain, gehienak prestakuntza-jardueretan oinarritzen direla batez ere.

Pertsona horien ikuspegiaren arabera, oso ekintza zehatzak izaten dira, iraupen laburrekoak, kolektibo txiki batera bideratuta daudenak eta gizonek berdintasunean inplikatu behar dutela uste duten berdintasuneko teknikariek bultzatzen dituztenak.

Ekimenen adibide gisa, Euskadin gauzatutako esperientzia batzuk aipatu dituzte (Gizonduz programaz gain). Esperientzia horiek interesgarriak direla aipatu dute (Ezberdin proiektua, Ongizek garatu duena Arabako Foru Aldundiaren hitzarmenen eta diru-laguntzen bitartez); dinamizazio-prozesu bat, Basauriko Udalaren Berdintasun Arloak bultzatu duena sindikatuekin eta enpresekin indarkeria-gaiak, enpresako Berdintasun Planak, eta abar lantzeko; Arrasaten, koordinakunde antzeko bat sustatu zen eta bertan gizon askok hartu zuten parte gizarte-mugimenduekin koordinatuta; Getxon, prestakuntzarekin lotutako jardunak, urtero egiten direnak). Esperientzia horiek egin dira edota oraindik ere egiten dira garrantzitsutzat edo beharrezkotzat hartzen direlako eta baliabideak bideratu direlako haietara, nahiz eta baliabide horiek gutxi izan.

Beste herrialde batzuetako esperientziak ere aipatu dituzte, esate baterako, Ekuadorrekoak (beren maskulinitateak, gizon sentitzeko beren modua landu duten gizonak); edo lehenengo haurraren jaiotzak emakumeengan eta gizonengan duen ahalmen eraldatzaileari buruzko ikerketak.

## 1. POLITIKA MOTA HORI BULTZATZEARI BURUZKO BALIOESPENA

Pertsona talde batek aipatu du ez duela gizonei bideratutako politikei buruzko inolako irizpiderik; neurri batean politika mota horiei buruzko behar adinako ezagutzarik ez duelako, ezta prestakuntzatik haratago egon daitezkeen jardun-ildoek buruzko ezagutzarik eta politika mota hori ematen ari den emaitzei buruzkorik ere; eta beste neurri batean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko beste politika mota batzuetan edo beste jardun batzuk izan dituztelako ardatz beren lan-eremuan.

Ia pertsona guztiek adierazi dute garrantzitsua eta ezinbestekoa dela politika mota hori bultzatzea (bereziki emakumeei bideratuta daudenez eta izaera mistoko jardunez gain); nolana ere, talde zabal horren barruan, bi iritzi mota detektatu dira eta ildo horiek honela definitu ditugu: 1) garbi daukaten pertsonak, zalantzarik gabe, eta 2) sentimendu eta iritzi antibalenteak adierazten dituzten pertsonak. Bi kasuetan ondoren aipatutako ditugun argudioak adierazi dira.

### 1) Garbi daukaten pertsonak honela argudiatu dute:

- ✓ Emakumeentzat mesedegarriak izango dira bizitza eta espazioa partekatuko dituztelako gizonekin batera; gizonek gauza gehiago hartzen badituzte beren gain, emakumeek gauza gutxiago hartu beharko dituzte beren gain.
- ✓ Garrantzitsua da gizonak kontuan hartzea eta garrantzitsua da beren prestakuntzarako espazioak edo beste mota bateko espazioak izatea.
- ✓ Berdintasunaren alorrean aurrera egiteko, gizonekin lan egin behar dugu (balioak, jarrerak eta politikak aldatzea ahalbidetzen du). Horretarako, erakundearen eta politikaren alorreko apustua egin behar da, eta apustu horrek ahalbidetu behar du denboran aurrera egitea, jarraitutasuna izatea eta jarraibideak izatea aurrera egin ahal izateko.

- ✓ Pertsona horiek uste dute ezin dela aurrera egin emakumeak bakarrik hartzen badira kontuan; horregatik, gizonen balioak aldatzeko lan egin behar da, bereziki indarkeriaren gaiari dagokionez.
- ✓ Ezinbestekoa da politika espezifikoak izatea gizonekin egiten den lanak garrantzi handiagoa hartzen ez duen bitartean edo aldaketarik ez dagoen bitartean, bestela politika orokorretan eragin gutxi dute. Beste gauza bat da nola egin behar den.
- ✓ Interesgarria da ikusaraztea ezinbestekoa dela gizonak aldatzea, askoz gehiago aurreratzen ez den bitartean.
- ✓ Soilik emakumeen premiak kontuan hartzen dituzten jardunak gauzatzen badira, ez da lortuko gizonak erakartzea.
- ✓ Ahalbidetzen du gizarte-mailan ikusaraztea berdintasuna gizonen kontua ere badela.
- ✓ Behar adinako masa kritikoa sortzen laguntzen du, publikoki berdintasunaren alde eta genero-indarkeriaren aurka dauden, erantzunkidetasuna, aitatasuna, familiaratean berdintasunezko harremanak eta abar defendatzen dituzten eta gai horiek gizonen eta emakumeen kontuak direlako mezua zabaltzen duten gizonekin.

2) Zalantzak edo sentimendu anbibalenteak adierazten dituzten pertsonak honako hau nabarmentzen dute:

- ✓ Herritarrentzat pentsatuta dauden eta gizonak ere barnean hartzen dituzten jarduerak edo ekintza programa asko badaude, zertarako gauzatu behar dira bereziki gizonentzat diren jarduerak?
- ✓ Beharrezkoak al dira gizonentzako hain jardun espezifiko eta zehatzak, beharrezkoa al da hain baliabide espezifikoak bideratzea gizonentzat haiek horrelakorik eskatzen ez badute? Gizonek mota horretako eskaerarik ez egiteak eragiten du gizonengana ez iristea gizonen interesatzen ez zaizkielako; ez da gizonen eskatu duten zerbait.
- ✓ Hain baliabide gutxi izanda, merezi al du horrenbesteko ahalegina egitea eta hainbeste denbora eskaintzea emaitza zein izango den ez dakigun gauza bat lortzeko?
- ✓ Pertsona horiek uste dute egokiagoa izango litzatekeela emakumeak eta gizonak inplikatzea lortuko duten estrategiak bilatzea.

- ✓ Emakume migratzaileek, emakume pobreek eta guraso bakarreko familiek dituzten premia praktiko espezifikoek erantzutea lortzen ez bada, nola bideratuko dira baliabideak gizonekin hainbat alderdi, hala nola arrisku-jokabideak edo osasun-ohiturak lantzeko bereziki?
- ✓ Emakumeen eskubideak bermatzera bideratutako aurrekontuak murriztu egin dira.
- ✓ Ez dago diru-funts espezifikorik gizonekin lan egiteko.
- ✓ Ez da garbi ikusten gizonekin egiten ari den lanak emakumeen eskubideak hobetzeko balio ote duen.
- ✓ Egiten diren prestakuntza batzuk ez daude politizatuta, ez dute hobekuntza-inpakturik emakumeengan eta ez dira estrategikoak.
- ✓ Egiten diren ikastaro motak heterozentratuak dira (ikastaro horietatik onurak ateratzen dituzten gizonak heterosexuak dira, bikotekidea dute, eta haurrak dituzte).
- ✓ Uste dute gizon talde batzuk ez direla ikuspegi feministatik lan egiten ari, eta, gainera, ez zaie ikuspegi horretatik lan egitea eskatzen.
- ✓ Mugimendu feministaren aldetik ez da gizonen mugimendurik izan, ez da argi eskatu bereziki gizonen bideratutako politikekin lan egitea.
- ✓ Egiten diren jardun motak ez dira eraldatzaileak.
- ✓ Generoari dagokionez, gizonen premia praktikoak lantzea estrategia bat izan daiteke, baina betiere generoaren interes estrategikoak lantzeko prozesu bat abian jartzen bada (emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea, berdintasunezko partaidetzak gune politikoetan, eta abar). Gizartean eragina edo inpaktua eduki dezakeen prozesu bat abian jartzea lortzen denean, denak zentzu handiagoa hartzen du.
- ✓ Oso ondo pentsatu behar da zer jardun proposatuko diren, nola proposatuko diren, nahi ez diren zer ondorio eragin ditzaketan (hedabideek emango dieten tratua, zer harreman duten mugimendu feministarekin...).
- ✓ Berdintasun-politikek, erakunde guztietan, aurrekontua izan beharko lukete eta aurrekontu horren barruan gai hori bultzatu beharko litzateke, baina kontu handiz beti (*gizarteari begira saltzeko modukoa den hit berria da eta oso ondo sartzen da*).



## 2. POLITIKA MOTA HORREKIN IZAN DUTEN ESPERIENTZIAREN BALIOESPENA

Politika mota horrekin izan duten esperientziatik abiatuta, honako balioespen hauek egin dituzte:

- Jardun isolatu eta puntaletatik haratago, egoera edo une jakin baten ondorioz edo erantzukizun politikoa edo teknikoa duten pertsonen interesa dela medio (normalen Berdintasuneko teknikariak) sortutakoak batzuk, uste dute ez dagoela ildo instituzional argirik.
- Uste dute landu behar den zerbait dela, baina ez dagoela «jatorririk» ezta behar adinako eskaerarik ere eskuragarri dauden baliabide eskasak bideratzeko. Gainera, kasu gehienetan, emakumeek eskatzen dute eta gizonak ez dute ondo erantzuten.
- Bereziki gizonak bideratutako sentsibilizazio- edo prestakuntza-ikastaroak eskaintzeak ahalbidetzen du gizonak parte hartzea, oso zaila baita lortzea gizonak jardueran mistoetan (emakumeentzat eta gizonentzat direnetan) parte hartzea.
- Prestakuntza-ikastaroak arrakasta handia izan dute bitarteko langileen artean eta oso modu positiboan balioetsi dituzte; pertsona batzuek adierazi dute litekeena dela arrakastaren zati handi bat prestakuntza hori egiteagatik ematen diren puntuengatik izatea.
- Gizonduz ekimenak eskaintzen duen prestakuntza doakoa izatea oso alderdi garrantzitsua da bereziki gizonentzat diren jardunak egiteko erabakia hartzeko.

7

## 3. GIZONDUZ EKIMENAREN BALIOESPENA

Focus group horietan parte hartu duten pertsona gehienek Gizonduz programarekin elkarlanean jardun dute, batez ere sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak dagokienez. Ekimen honetan parte hartzeko eman diren arrazoi nagusiak, bakarrak ez badira, ere, honako hauek dira: prestakuntza doakoa izatea, Gizonduz programak eskaintzen dituen ikastaroak ere doakoak izatea eta Berdintasun Unitateetan aurrekonturik ez izatea (Jaurlaritzakoak, Aldundietakoak eta Udaletakoak).

Teknikari horietako askoren ustez, azkenean tresna bat da, prestakuntza modu malguan antolatzeko eta nahi duzunera egokitzeko aukera ematen duen tresna. Bestalde, eskaintzen

dituzten ikastaroak ondo bideratuta daudela jakiteak lasaitasuna ematen du. Era berean, teknikariek uste dute balio handiko prestakuntza-tresna dela, sektore edo kolektibo jakin batzuetako pertsonak ez ezik, herritar guztiak ere sartzeko aukera ematen duelako.

Ondoren, focus groupetan aipatutako alderdi negatiboak edo hobetzeko moduko alderdiak eta alderdi positiboak azalduko ditugu.

### **Alderdi negatiboak edo hobetzeko moduko alderdiak:**

Pertsona batzuek uste dute Ekimenaren kostua izugarria dela daukan eraginarekin alderatzen badugu; pertsona horien ustez oso eragin txikia duelako. Adierazi dute gogoeta egin beharko litzatekeela erabiltzen diren baliabide ekonomikoak justifikatzen ote diren jakiteko, kontuan hartzen badugu soilik sentibilizatu eta prestatu egiten dela, eta dagoeneko kontzientziatuta dagoen jendea prestatzen dela. Beste muturrean, pertsona batzuek kritikatu egiten dute Ekimenaren baliabide ekonomikoak murriztu izana.

Pertsona batzuek kritikatzeko dute ekimenak gaur egun oso presentzia txikia izatea gizartean eta ekimenak gizarte-mugimenduetan duen eragina txikia izatea. Era berean, ikusten da Ekimena zertxobait «adoregabatu» dela; ez dakite horren arrazoia zein izan den, agian baliabiderik ez dagoelako edo funtsean ez zegoelako argi Ekimen hori nora bideratu nahi zuten.

Gizonduz programaren azken helburua zein den argi ez badaukate ere, esaten dute programa horren helburu espezifikoak sinpleegiak eta lortzeko errazegiak direla; uste dute helburuek anbizio handiagokoak izan beharko luketela eta legea aldatzeko proposamenen buru izan beharko luketela; esate baterako, lan egiteko moduei, ordutegiei eta enpresa-antolamenduei eragiten dieten proposamenen buru.

Gai horri dagokionez, erakunde-arloko lan-agenda zehatzik ez dagoela adierazi dute eta azpimarratu dute gaur egun jardun puntualak daudela.

Ikusten da nolabaiteko deskoordinazioa dagoela Gizonduz programaren eta Emakundek bultzatutako beste programa batzuen artean, adibidez Beldur Barik programa.

Zalantzan jartzen dute eskoletarako bideo-joko bat egitea; izan ere, uste dute garrantzitsuagoa izango litzatekeela irakasleekin lan egitea baterako hezkuntza egin

dezaten. Esaten dute Hezkuntza Sailak gehiago inplikatu beharko lukeela ikastetxeekin egiten den lanean.

Nolabaiteko kritika egiten diote «aitatasun erantzunkidea» sustatzeari eta adineko pertsonen zaintza ahazteari; gainera, uste dute zaintzen gaiaren tratamendua oso jardun puntualetara mugatzen dela.

Gizonduz programak eskaintzen dituen sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroei dagokienez, honako iritzi hauek aipatu dituzte:

- Ikastaroetan emakumeen presentzia handia dela ikusi denez, aipatu dute bi alderdiri buruzko gogoeta egin beharko litzatekeela: 1) prestakuntzan gizon gehiago inplikatzeke moduari buruz; eta 2) prestakuntza jardun-esparru orokorrago batean (eta ez Gizonduz programatik) lantzeko premiari buruz eta prestakuntzaren buru Emakunde izateari buruz.
- Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroetan lantzen diren edukiei buruz, pertsona batzuek honako hau nabarmendu dute: beti ikastaro berdinak dira eta oinarrizko samarrak dira; ez dute uste lanean aplikatzekoak direnik; ez da sakontzen jarraitzen, eta ez dira politika edo esku-hartze zehatzak diseinatzen erakundean inpaktu handiagoa izateko; ez dago jarraitutasunik, sentsibilizazio puntualerako balio du, eta batzuetan pertsona asko sartzen dira tartean, baina gero ez da ezer gehiago lortzen. Ez dira eduki sektorial espezifikoak lantzen; hori, agian, ikastaroen iraupenarengatik gertatzen da.
- Zalantzan jarri dute inpaktua, gizonen partaidetzari dagokionez, Gizonduz programaren prestakuntza-ikastaroen aplikagarritasun-maila eta daukan ahalmen eraldatzaile eskasa; batez ere daukan kostuarengatik. Baita ikastaro gehienak 4 ordukoak izatea ere, alderdi horrek murriztu egiten baitu eragiteko gaitasuna, eta, gainera, kolektibo batzuekin (poliziak, suhiltzaileak, eta abar) gerta daiteke bilatzen den ondorioaren kontrako ondorioa lortzea, paradoxikoa badirudi ere (denbora hori ez da nahikoa jokabide sexista edo matxista markatuenak dituzten pertsonekin agertu ohi diren erresistentziak lantzeko). Gizonduz ekimenaren prestakuntza-programari egiten dioten beste kritika bat da helburua gizonak inplikatzea bazen ere, lortu dena zera dela, prestatutako pertsonen % 47 emakumeak izatea.

- Modu negatiboan balioesten da erakundeen aldetik berdintasunari buruzko doako prestakuntza lortzeko modu bakarra Gizonduz Programaren bitartez izatea. Batzuek adierazi dute zerbait «ez dagoela ondo egokituta» EAeko Berdintasunari buruzko prestakuntza publikoa Gizonduz programatik igarotzen bada.
- Aipatu dute arriskua dagoela gizonak eroso sentitzeko «gaiari buruzko ezagutza dut», «gai horiei buruz hitz egin dezaket» esanez, baina gero ez inplikatzeari eta ez konprometitzeari gizarte-eraldaketarekin.

### **Alderdi positiboak:**

Modu positiboan balioetsi dute azken urte hauetan egindako lana, gizonak sentsibilizatu edo prestatu dira (aipatu dute azaroaren 25ean indarkeriaren aurka egin zen manifestazioan gizonen –helduen eta gazteen– partaidetza oso handia izan zela). Era berean, nabarmendu dute kasu batzuetan Gizonduz programak lagundu zuela gizon taldeak sor zitezkeen bultzatzen (esate baterako, Ermuan). Uste dute programa egokia dela Administrazioaren Zerbitzu edo Sektore oso maskulinizatueta lantzeko.

Era berean, batzuek balioesten dute Gizonduz programak egin duen ahalegina gizonekin lan egiteko premia dagoela ikusarazteko; halaber, balioetsi da bere garaian eman zitzaion bultzada politikoa, eta nabarmendu dute «gizon euskaldunen gutunak» balio sinboliko garrantzitsua izan zuela, argi eta garbi hitz egin ahal izan zelako publikoki gizonen berdintasunean eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan inplikatu behar zutela.

Komunikazioari dagokionez, oso modu positiboan balioetsi da Gizonduz ekimenaren webgunea, informazio asko dagoelako (elkarrizketa interesgarriak, gogoetarako artikuluak,...) eta oso interesgarritzat hartzen delako dokumentu-zentro gisa.

Modu positiboan balioesten da prestakuntza-ikastaroez arduratzen direnak gizonak izatea kolektibo maskulinizatuarekin lan egin behar denean. Gainera, prestakuntza interesgarria dela uste dute, beste prestakuntza mota batzuetan azaltzen ez diren maskulinitateen ikuspegia ematen duelako.

Pertsona batzuek balio erantsia ematen diete Gizonduz programako ikastaroei, oso gune maskulinizatueta aukera ematen dutelako gizonen plantillak gai horiei buruz duten sentsibilitate-mailari buruzko diagnostiko txiki bat egiteko.

## 4. IKUSPEGIAK, LEHENTASUNAK, IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK

Ikuspegi pragmatiko batetik begiratuta, focus groupetan parte hartu zuten pertsoneri eskatu zitzaien aipatzeko bereziki gizonen bideratutako berdintasun-jardunak edo -politikak diseinatzerakoan eta ezartzerakoan zer ikuspegi, lehentasun eta irizpide hartu beharko liratekeen kontuan. Gainera, eskatu zitzaien aparteko ahalegina egin zezatela lan-proposamen jakin batzuk egiteko.

### 4.1 Ikuspegiak

Proposatu diren ikuspegi desberdinek ez dute zertan baztertzailak izan, baizik eta ikuspegi osagarriak dira, nahiz eta focus groupetan parte hartu duten pertsonen bereizita proposatu dituzten.

#### Justizia soziala:

Ezinbestekoa da erabateko berdintasuneko gizartea eraikitzeke helburu nagusia duten gizonen inplikatzeko, justizia sozialeko gai bat delako; gizonen aliatuak izan behar dute eta onartu behar dute gizartea bidezkoa izateke ezinbestekoa dela onurak eta galerak izatea; gizonen aldeko aldatzeko gizarte-prozesuan eragin behar da mugimendu bat sorraraziz emakumeek aurrera egitearen aurkako erresistentzia aktibo eta pasiboen egungo egoeratik hasita berdintasunaren aldeko posizioak lortzeko; jabetu behar dute emakumeen egoeran dagoen ekitaterik eta justiziarik eza oraindik ere badagoen sistema patriarkalarengatik dela.

#### Erantzukizuna/Erantzunkidetasuna:

Ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna arazo bat dela eta guztion erantzukizuna dela adierazten duen ikuspegi bat. Ildo horretan, ezinbestekoa da lehendabizi balio-sistema zalantzan jartzea, garrantzitsutzat eta bigarren mailakotzat hartzen duguna zalantzan jartzea. Hortik abiatuta, zaintza-lanak partekatu egin behar dira,

modu erantzunkidean egin behar dira, eta ez da egingo lan horretatik onura pertsonala lortuko delako, baizik eta gizarte-kontzientziagatik egingo da.

Gizon izateko beste modu batzuk:

Gizon asko ez dira identifikatuta sentitzen gizon izateko modu horrekin, eta ez dituzte, halaber, beren lekuak aurkitzen.

Justizia soziala/Erantzunkidetasuna/Sistemak gizonengan dituen ondorio negatiboak:

Justizia soziala aldarrikatuz lan egin behar da, baina sistema patriarkalak gizonengan eragiten dituen ondorio negatiboak onartuta.

Galerak eta pribilegioak:

Gizonek galdu egiten dute sistemarekin, baina pribilegioak ere lortzen dituzte. Pribilegioak galtzearen ikuspegitik lan egiteak zaildu egiten du gizonak berdintasunaren aldeko borrokan sartzea; ez da gauza bera eskubideen alde borroka egitea eta pribilegioak galtzeko aukera onartzea. Gizonak sartu ahal izateko, diskurtsoa ondo antolatu behar da, eta aukeratu behar da gizonekin lanean hastea ikuspegi bat edo beste bat erabiliz, gurekin batera lanean ari den gizon taldearen arabera; nahiz eta azkenean bi ikuspegiak landu.

12

Justizia Soziala/Giza Eskubideak/Erantzunkidetasuna:

Helburua giza eskubideen eta gizarte-erantzukizunaren arlokoa da. Hortik abiatuta, politikai buruzko ikuspuntu berri bat ezarri behar da, ikusteko nola erakarri behar diren premiak dituzten emakumeak eta nola lan egin behar den haiekin, eta nola lan egin behar den pribilegioei uko egin behar dieten gizonekin.

Birbanaketa:

Birbanaketa landu behar da, gizonak dituzten pribilegioei uko egin behar dietela, matxismoak eta patriarkatuak kalte egiten dien moduan eraikitzen dituela onartuz eta horretan ere arreta jarritz.

Berdintasunarekin gizarteak irabazten du, baina ezinbestekoa da arlo pertsonalean galtzea:

Berdintasunarekin gizarteak irabazten du, baina ezinbestekoa da arlo pertsonalean galtzea. Esan daiteke zerbait irabazten dela, baina orokorrean, galdu egingo duzu.

### Sexua-generoa sistema ez da ona inorentzat:

Sexua-generoa sistema batez ere emakumeentzat da txarra, baina gizonentzat ere txarra da. Nolanahi ere, gizonek beldur handia diote dituzten pribilegioak kentzeari. Gizartea ez dago sentsibilizatuta pribilegioei uko egiteko eta pribilegioei uko egiten zaienean lortzen diren onurak ez dira ulertzen. *Maila eta estatusa dira nik sozialki eraikitzen ditudanak eta hortik ateratzen ditut nire pribilegioak, eta beste gauza bat da pertsona gisa dudana boterea. Botere hori ez dit inork kenduko niri, ez da negoziagarria. Gizonak mailari eta estatusari buruz sentsibilizatu behar ditugu, hori da negoziatu daitekeen aldea.*

### Gizartea sistema patriarkaletik askatzea:

Ezinbestekoa da emakumei bideratutako politika espezifikoak izatea, baina hori ez da bateraezina espezifikoki gizoni bideratutako politikak izatearekin. Gizartea sistema patriarkaletik askatzeko lan egiten bada, ez zaio alde bati soilik mesede egingo.

## **4.2 Lehentasunak**

Presazko gaiak indarkeria eta erantzunkidetasuna (etxeko lanak eta zainketak) izango lirateke, baina adierazitako iritzi batzuetatik ondorioztatzen denaren arabera, gai horiek beste modu batera planteatu beharko lirateke.

Indarkeriaren gaiari dagokionez, ezinbestekoa da gizonek oso jarrera aktiboa izatea. Gizonek indarkeriaren aurkako jarrera hartu behar dutela ulertzera eramango dien ikuspegi batetik lan egin behar da. Sentsibilizazioa beste ikuspuntu batetik egin daiteke, gizonek barneratuta daukaten indarkeria lantzerantz bideratuago dagoen ikuspuntutik, alegia.

Indarkeriaren gaia ez da modu irekian landu gizonekin; pertsona batzuek uste dute gizonen artean ez dela ahalbidetu emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko kontaketa adostua eraikitzea.

Erantzunkidetasuna denaren barnean aipatu da aitatasun-baimena landu behar dela, erantzunkidetasunerako lotura delako, lortu behar da baimena osasun- eta hezkuntza-zerbitzu guztiekin lotuta egotea; erraztu behar da gizonek zerbitzu horietan presentzia izatea.

Enpresekin ordutegi-malgutasunari buruzko gai oro lantzearen aldeko apustua egin da. Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) enpresetara iristeko tresna interesgarria izan

daiteke, gero eta gehiago eskatzen baita, nahiz eta apaingarri bat besterik ez izateko arriskua egon, gerta bailiteke lan-prozedura hobetzea baina balioak ez aldatzea.

Oso garrantzitsua da lan espezifikoak egitea gizonekin eta gizon taldeak sustatzea. Talde horiek sustatu behar dira talde horiek kontzientziario soziala eta maskulinitatearen deseraikitzea landu dezaten.

Era berean, sexu-eskubideen kasuan alderdi asko daude emakumeekin lantzeko, baita gizonekin lantzeko ere; gainera, pertsona askok uste dute gai estrategikoa dela LGTB kolektiboekin eta feministekin aliantzak egiteko. Sexu-aniztasuna lantzen bada, beste gizon mota batzuetara iristeko aukera izango da.

Azkenik, adierazi behar da jendeak uste duela iritsi dela garaia gizon taldeen, emakume taldeen, feministen eta gizon profeministen taldeen arteko topaketak egiteko.

### 4.3 Irizpideak

Jarraitu egin behar da gai honekin, eta baliabide espezifikoak bideratu behar dira; baliabideak ez dira beste berdintasun-politika edo -programa batzuetatik atera behar eta agente eta eremu gehiago inplikatu behar dira; era berean, mugimendu feminista eta LGTB mugimendua kontuan hartu behar dira.

Ikuspegiak integrala izan behar du, hots, aldatzeko prozesu pertsonalak ahalbidetu behar ditu, baita balio berrien sorrera ere.

Gizonei zuzendutako jardunak diseinatzeko genero-teoria hartu behar da oinarritzat. Gizonei zuzendutako esku-hartze bat diseinatzen bada, litekeena da hasiera batean premia edo helburu jakin batean oinarrituta egotea, baina azken helburua genero-premia estrategikoak izango dira.

Ezinbestekoa izango litzateke ikuspegi feminista eta atalen artekoa izatea, betiere gizonen artean dauden desberdintasunak aintzat hartuta. Begirada zabaldu behar da, gizonak generoaren rol maskulinoaren indarkeria-subjektu ere badirelako.



Gizonei zuzendutako jardunek utilitarismoa gainditu behar dute eta gizonen rola berrikustez gain, indarkeria moduak berrikusi behar dituzte, eta mezu positiboak eman ez erakarri behar dituzte gizonak.

Ezinbestekoa da aztertzea eta kontuan hartzea gizonentzako politika espezifikoetarako baliabide asko bideratzen direlako pertzepzioa (dauden baliabideei dagokienez, berez, gutxi baitaude). Era berean, kontuan hartu beharko litzateke jardun jakin batzuek duten presentzia; jardun horiek batez ere gizartean hartzen duten garrantzi mediatikoa; baita berdintasunaren alde lan egiten duten gizonen harremanetan eta bestelako emakumeen elkarteetan edo kolektibo feministetan eduki dezakeen ondorioa ere.

#### 4.4 Proposamen zehatzak

Honako hauek dira egin ziren proposamen nagusiak:

- Gizarte-mugimenduekin ere lan egiten duen gizon talde erreferenteren bat sortzea eta talde hori gizonak dauden tokira joan dadila.
- Gehiago aurreratzea ezagutza eta eztabaida sortzen; izan ere, lehendik dauden ekimenak gehiegi oinarritzen dira prestakuntzan.
- Politika mota horri buruzko diskurtsoak argiago izan beharko luke. Gainerako politiketan diskurtso gutxi-asko homogeneoa, zentratua eta segurtasunez sortzen ari da, baina ez da gauza bera gertatzen bereziki gizonei bideratutako politikekin.
- Prestakuntza-eskaintzak berdintasunekoak izan beharko luke orokorrean; maskulinitateen modulu espezifiko batekin.
- Interseksionalitateen gaia landu behar da.
- Gizonekin egiten den lanari publizitate gehiago egin beharko litzaioke.
- Maskulinitatea eraikitzeari buruzko ikerketa, prestakuntza eta sentsibilizazioa hartu beharko lirateke kontuan.
- Lortu beharko litzateke politikan dauden gizonen gai horrekiko duten inplikazioa handiago izatea.
- Arrakasta izaten ari diren esperientziak berreskuratu eta ikusarazi beharko lirateke, negatiboa dena soilik nabarmenduz ez baita aurrera egiten.
- Gizonei bideratutako politika horiek queer teoretara, generoen deseraikuntzara nola egokitu daitezkeen ikusi behar da.

- Garrantzitsua da gizonen bideratutako politikak antolatzea sektore-politika jakin batzuetatik abiatuta (migrazioa, adingabeak, zaintzak, aitatasunak, sexu-orientazioa eta genero-identitateak, eta abar), politika gai horretan inplikatzeko lortu behar da, eragina izan nahi dugun gizonen tipologiaren arabera, lan-estrategia eta -esparru desberdinak bilatu behar dira (gazteak, etorkinak, aitak, enpresaburuak, eta abar), gizonen inplikazioa areagotzeko formulak bilatu behar dira.

## **5. AURRERAPENAK ETA ETORKIZUNENKORREKAK**

### **5.1 AURRERAPENAK**

Jende askok uste du, iritzi orokorra ez bada ere, berdintasun-politika orokorrek eta bereziki gizonen bideratuta dauden politikek inpaktu kuantitatibo garrantzitsua eragin dutela.

Gero eta mutil gehiago daude sentibilizatuta gai honekin eta beren berdinei aurre egiten diete eta neskekin dituzten harremanak desberdinak dira. Era berean, gizon gehiago (helduak eta gazteak) jabetzen dira identitate hegemoniko maskulinoek eratzen dituzten elementu negatiboak («zapaltzaileak»).

Gazteen artean indarkeria eta kontrol modu berriak –bortitzagoak ere izan daitezkeenak– badaude ere, orokorrean aurrera egin da (emakumeen aurkako indarkeria gehiago arbuiazen da).

Gizonek mundua ikusteko moduari buruzko diskurtsoari dagokionez, aurreratu da; eta hori ez da soilik gertatu Emakundek egin duen lanarengatik, baita Berdintasun Unitateek, mugimendu feministak eta abarrek egin duten lan guztiarengatik ere.

### **5.2 ETORKIZUNENKORREKAK**

- Gaur egun dagoen erronketako bat sare sozialetan eta hedabideetan ikusten dugun korronte neomatxistaren aurka gogor egitea da.
- Modu jarraituagoan eta intentsiboagoan lan egitea haurtzaroen, maskulinitateen eraikuntza ere barne hartzen duen ikuspegi koheziatuetatik abiatuta.

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako emakume irakasleen kopurua murriztea; erreferentziazko gizonetzko irakasleak behar dira.
- Jendeak, orokorrean, uste du gure gizartean badagoela berdintasuna; horregatik, zaila da gizonak berdintasunerako mugimendura erakartzea.
- Gaur egun jardun puntualak daude, baina ez dago erakunde-arloko lan-agenda zehatzik bereziki gizonen bideratutako berdintasun-politiken alorrean. Erronketako batzuk izan daitezke gizonen bideratutako politikak antolatzea sektore-politika jakin batzuetatik abiatuta (migrazioa, adingabeak, zaintzak, aitatasunak, sexu-orientazioa eta genero-identitateak, eta abar), politika gai horretan inplikatzeko lortzea, eragina izan nahi dugun gizonen tipologiaren arabera, lan-estrategia eta -esparru desberdinak (gazteak, etorkinak, aitak, enpresaburuak, eta abar) eta gizonen inplikazioa areagotzeko formulak eta abar bilatuz.

Txosten hau bukatzeko, bereziki gizonen bideratutako politikei buruzko etorkizuneko gogoetari begira, esku hartzeko eremu honetako adituek proposatutako galdera hauek egin nahiko genituzke<sup>1</sup>; argi dago galdera horiei eman dakizkiekeen erantzunak lagunduko dutela politika mota horrek emakumeengan, gizonengan, eta orokorrean gizartearengan duten inpaktu positiboa hobetzen. Aipatutako galderak honako hauek dira:

- √ Programek nola har dezakete ikuspegi erlazionalago bat eta nola txerta ditzakete gizonen eta haurren partaidetza bultzatzen duten ekimenak emakumeak eta haurrak ahalduz dituzten ekimenetan?
- √ Zer datu frogagarri daude harreman-ikuspegi horiek duten eraginari buruz?
- √ Zer kasutan da onuragarria gizonen eta mutikoen soilik arduratzea (edo soilik emakumeen eta nesken) eta zer kasutan da onuragarria eta eraginkorra gizonen eta emakumeekin elkarrekin lan egitea?
- √ Zer behar da programak hedatu ahal izateko eta programek beren ekimenei eusteko? Zein dira hedatu eta mantendu ahal izan diren programen faktore, baldintza edo estrategia eraginkorrikideak? Zer programa hedatu behar dira?
- √ Egiturazko zer aldaketari eta politikari esker lortu da edo lor liteke gizonengan eta maskulinitatean aldaketa handia lortzea?

---

<sup>1</sup> Gary Barker, Christine Ricardo eta Marcos Nascimento (2007). *Cómo hacer participar a los hombres y los niños en la lucha contra la inequidad de género en el ámbito de la salud. Algunos datos probatorios obtenidos de los programas de intervención*. Osasunaren Mundu Erakundea (OME) eta Promundo Erakundea. Osasunaren Mundu Erakundeak argitaratua (Geneva). <http://www.who.int/gender/documents/Men-SPAN.pdf>

## **ERANSKINA: FOCUS GROUPETAN ERABILITAKO GIDOIA**

**GIZONAK SARTZEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN-POLITIKA**  
**PUBLIKOETAN**

- A) Zein da zuen iritzia bereziki gizonei bideratutako berdintasun-politikei/-programei buruz?** (ados al zaudete horrelako politikak egin behar direlako ideiarekin?, garrantzitsuak iruditzen al zaizkizue?, zuen ustez zer inpaktu mota izan dezakete emakumeengan eta gizonengan?).
- B) Bereziki gizonei bideratutako berdintasun-politiken/-programen egungo egoerari buruz:**
- *Zenbateraino ezagutzen dituzue?*
  - *Egin balioespen orokor bat*
  - *Aipatu aurrerapen nagusiak eta erronka nagusiak*
- C) EAEn, politika mota horren adibide bat GIZONDUZ da:**
- *Zenbateraino ezagutzen duzue?*
  - *Egin balioespen orokor bat*
  - *Aipatu aurrerapen nagusiak eta erronka nagusiak*
- D) Bereziki gizonei bideratutako berdintasun-politikei/-programei buruzko ikuspegiak:**
- E) Bereziki gizonei bideratutako berdintasun-politikak diseinatzerakoan lehentasunak ezarri beharko balira, zein izango lirateke lehentasun horiek?**
- F) Aipa al ditzakezue bereziki gizonei bideratutako berdintasun-politika publikoak diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren irizpide batzuk?**